

14. NAO - 2015ko urtarrilaren 22a

25. ORDENANTZA

ORDENANTZA FISKALA, UDALEKO GAZTERIARENDAKO BALIABIDEEN ZENTROAK ANTOLATZEN DITUEN IKASTARO EDO JARDUERA SOZIOKULTURAL NAHIZ AISIALDIKOETARAKO SARRERA, IZEN EMATE EDO MATRIKULAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatuari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikulua baimenaren babesean.

Kontzeptua

2. artikulua. Prezio publikoak galdutako dira, Udaleko Gazteriarendako Baliabideen Zentroak urtean antolatzen dituen ikastaro edo jarduera soziokultural nahiz aisialdikoetarakoetan parte hartu edo horietara joateko eskubidea ematen duten sarrera, matrikula edo antzeko beste edozein kontzeptu dela eta, prezio publikoak aplikatzeko beste ordenantza batzuetan sartuta ez daudenean.

Kudeaketako eta diru-bilketako arauak

3. artikulua. Prezio publikoaren zenbatekoa ordainduko da izen-ematea edo matrikula egitean.

4. artikulua. Prezio publikoak ikastaroa edo jarduera antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan eta tokian ordainduko dira.

5. artikulua. Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, ikastaroa edo jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio. Gainerakoetan, behin betiko inskripzioa eginda, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko.

Tarifak

6. artikulua. Aplikatu beharreko tarifek zerbitzuaren zuzeneko kostuaren %50 ordainduko dute gutienez; alegia, monitorearen edo zerbitzua ematen duen enpresaren kostua.

7. artikulua. Ordenantza honen eranskinean azaltzen diren tarifak aplikatuko dira, edo kasu bakoitzean Tokiko Gobernu Batzarrak ezartzen dituenak, betiere garatu behar den jarduerari egokituak, eta, hala bada, Balio erantsiaren gaineko zergaren kuota ere eramanen du.

2015EKO TARIFEN ERANSKINA

	ERROLD.	ERROLD. GABEAK
– Prezioa / ikastaro ordua	1,65	3,30

Beti saiatuko da ikastaroek 20 ordu inguru iraun dezaten eta, betiere, orduen eta zenbatekoen batez bestekoa eginen da, ikastaroen edo lantegien iraupenaren arabera, aurreko taula kontuan hartuz.

Erroldatu gabeak ikastaro eta lantegietan plaza librerik gelditzen bada baizik ez dira onartuko. Haiendako, ikastaro bakoitzaren prezioa erroldatuena halako bi izanen da, arestiko taularen arabera.

Behin betiko inskripzioa gauzaturik ez da ordaindutako zenbatekoa itzuliko.

Izena emateko epea bukatuta, eskainitako ikastaroren batean plaza librerik gelditzen bada, matrikula berriak ematen ahalko dira, betiere ikastaro guztia ordaintzen badute.

Antolatzailleek ikastaro edo tailerren bat bertan behera utziz gero, kuotaren zenbatekoa itzuliko zaie izena emandako erabiltzaileei.

Halako ikastaro berariazkoak badira, ezaugarri bereziak biltzeagatik, 10 erabiltzaileri baino gehiagori batera ezin zaienean eman, ez dira tarifa hauen barrenean sartuko. Horietan orduaren prezioak gutienez ikastaroaren kostuaren %50 estali beharko du.

Gizarte Zerbitzuen mendeko Gazteriarendako Programak antolaturiko jardueren tasak erreferentziazko eredu honen arabera gobernatuko dira:

Jarduera:

- Osasuna sustatzeko jarduera berariazkoak (Joan-etorri zerbitzua kenduta): Dohainik.
- Baliabide propioekin egiten diren jarduerak eta kostu erantsirik ez dutenak (maketen aurkezpena...) edo gauzatzeko material tikia erostea behar dutenak (eskola laguntza, Topalekua...): Dohainik.
- Elkarte edo talde egituratuak sustaturiko jarduerak (Break, BMX, Grafiti, Saca Puntas): Dohainik.
- Udalak antolaturiko txapelketak eta lehiaketak (Tratu onaren aldeko argazki lehiaketa...): Dohainik.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak proposatutako pertsona zaugarri edo arrisku handikoendako prebentzio jarduera hautazkoak, izen emate irekiak onartzen badira ere talde normalizatuak osatzeko: Dohainik edo kuota sinbolikoak (2,00 - 5,00).
- Talde naturalek proposaturiko jarduerak, gastu handirik ekartzen ez dutenak (Magic, Bosnako futbola, Futbolina, Ping pong-a...): haien gastuen %50 berdintzera jotzen duten kuotak, kostuaren %25era ailegatu behar bada ere jarduera gauzatu ahal izateko: Jardueraren kostuaren arabera.

	ERROLD.	ERROLD. GABEAK
–Joan-etorri	4,00	6,00